# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 288

*AGINDUA, 2011ko azaroaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Vitoria-Gasteizen (Araba) haur-eskola pribatu bat ireki eta jardunean jartzeko baimena emateko dena.*

Vitoria-Gasteizen (Araba) haur-eskola pribatu bat irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena eskatuz, «Enanitos, SA» entitatearen ordezkariak hasarazitako espedientea aztertu da.

Espediente hori Arabako Hezkuntza Ordezkaritzak bideratu du, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (9ko BOE); 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan) indarrean iraunarazten dituen azaroaren 16ko 215/2010 Dekretua (19ko EHAA); Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituen otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE), eta gai horretan erabiltzekoak diren indarreko gainerako xedapenak ikusi ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Baimena ematen da 2012-2013 ikasturtetik aurrera ondoren zehazten den haur-hezkuntzako ikastetxe pribatua irekitzeko eta jardunean jartzeko:

Kode-zenbakia: 01007129.
Izen generikoa: haur-eskola pribatua.
Izen espezifikoa: «Enanitos»
Titularra: «Enanitos, SA»
Helbidea: Gaztelako Atea, 62.
Udalerria: Vitoria-Gasteiz.
Lurralde historikoa: Araba.

Baimentzen diren irakaskuntzak: Haur Hezkuntzako 1. zikloa.

Ikastetxearen edukiera: 2 unitate, honelako edukierakoak:

- unitate 1 urtebetetik beherako ikasleentzat, 8 ikaspostutarako edukiera.
- unitate 1 urtebetetik bi urtera bitarteko ikasleentzat, 13 ikaspostuko edukiera.

2. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

4. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea, eta agindu honetan adierazitako daturen bat aldatu behar bada, dagokion berrikusketa eskatzera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo diru-laguntzen deialdien bitartez laguntzak lortuko direnik.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 29a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.